

Turismo Sektorea

Bidaiariak, 2016. urteko urria: Urtetik urterako Δ a: % +8,9; Δ Metatua: % +9,9

Ostazu gauak, 2016. urteko urria: Urtetik urterako Δ a: % +13,6; Δ Metatua: % +9,9

Urtarrila eta urria bitartean, hoteletako okupazio mailak +4 puntu baino gehiago irabazi ditu aurreko urterekiko, aldi berean, turista kopurua ia +%10 handitu baita. Batez besteko egonaldia 2,01 egunetan mantendu da.

Gipuzkoako hotel-estabuzimenduetan **bidaiarien sarrerek % +9,9**ko hazkundera metatu dute **urtarrila eta urria bitartean** aurreko urterekiko, % +7,6 orduan eta hogeita hamaika hilabetez jarraian urte-artereko tasa positiboak erregistratu dituzte. **% +14,1** egin dute gorra **atzerriko turistek**, **% +8,1** beste **erkidego autonomo batzuetatik etorritakoek**, eta neurrizko **% +0,7 euskal turistek** (% +8,9, % +7,3 eta % +3,7% hurrenez hurren pasa den urtean).

Batez besteko egonaldia, ordea, **aurreko urteko maila berberean mantendu** da, hau da, **2,01 egunetan**. Hau horrela da, urrian 2,01 egunetara ere heldu den arren (irailean behera egin zuen zertxobait aurreko urtearekiko). Orain arte, urriko batez besteko egonaldia bakarrik 1994, 1997 eta 2009 urtetan kokatu da 2 egunetatik gora. Hala ere, **beste erkidego autonomo batzuetako turisten** batez besteko egonaldiak **+0,1 egun** irabazi ditu, baina **-0,01 egun** murriztu da **atzeritarrena** eta **-0,03 egun euskal turistena**.

Turista kopuruak gora egin duenez eta batez besteko egonaldia mantendu, **ostazu-gauak** ere **% +9,9**ko hazkundera metatu dute **urtarrila eta urria bitartean** aurreko urterekiko, % +8,6 orduan. **% +13,6** igo dira **atzeritarren** ostazu-gauak eta **% +8,6** beste **erkidego autonomoetako** turistenak, baina euskal turistenak **% -1,0** jaitsi dira (% +11,8, % +6,6 eta % +3,8 aurreko urtean).

Eskaintza maila aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan den arren, ostazu-gauen igoerari esker, **okupazio mailak +4,1 puntu** irabazi ditu **plazen arabera** eta **+4,3 puntu logelen arabera**, **% 60,2a** eta **% 68,7a** lortu arte.


Bestalde, INEK egindako **Euskadiko ostalaritza-prezioen indizearen arabera**, prezioek, hogeita bi hilabetez jarraian urte-artereko tasa positiboak erregistratu dituzte eta **urtarrila eta urria artean** **% +4,5** inguruko igoera metatu dute aurreko urtearekiko, % +2,9 orduan.

Batez besteko tarifa edo ADRa hazi da ere urtarrila eta urria artean aurreko urtearekiko, **% +3,8** inguru (% +4,5 orduan). Kasu honetan, hala ere, urriko bilakaera negatiboa izan da eta tarifa **% -8,1** jaitsi da aurreko urtearekiko.

Okupazioak eta tarifek gora egin dutenez, **urtarrila eta urria artean eskuragarri dagoen logela bakoitzeko diru-sarrerek edo RevPAREk** **% +9,1** egin dute gorra aurreko urtearekiko, % +13,3 orduan. Hala ere, urrian, sarrerek ere jaitsi dira, **% -4,4** urte-artereko tasan.


Bidaiarien ostazu-gauak

Ostazu-gauak milaka



Hoteletako okupazio maila

Okupazioa plazen arabera



Euskadiko hoteletako prezioen indizea

Urtetik urterako tasak %-tan

